Bileraren helburua Euskadiko EGABk eta Akitaniako CESERen ordezkariak Bilbon martxoaren 20an eta 21ean izan behar zuten bilera prestatzea izan zen. Bertan Focus Groupen saioa programatua zegoen Euskadi-Akitania Euroeskualdeari buruzko Plan Estrategikoa egitearen esparruan. Gutxi gorabeherako gidoia oinarritzat hartuta, bileran Focus Groupak landuko zituen gaien inguruan (zehazki, kooperazio-estrategiak, nahasi behar ziren eragileak eta garatu beharreko proiektuak turismo, garraio, energia berriztagarri edo Euroeskualdearen gobernantza bezalako eremu zehatzetan) hausnarketa egin zen. Hausnarketaren emaitzak Idazkaritza Teknikoak bilera bateratuaren esparruan egin behar zen aurkezpenean jaso zituen.

Bilbon, 2014ko ekainaren 30ean


Bilera Euskadiko EGABk Akitaniako CESERen ordezkariekin uztailaren 1ean eta 2an Bordelen izan behar zuen bilera bateratua prestatzera bideratu zen. Batetik, “2014-2020rako Euskadi-Akitania Euroeskualdearen Lurralde Garapenari buruzko Estrategiaren Plana” oinarritzako dokumentuari buruzko hausnarketa egin zen, Euroeskualdearen gobernu-organoen eskutik bi EGABek jasotako gaiak erantzuteko. Hausnarketaren emaitza



bezala, erantzun-dokumentua egin zen, Akitaniako EGABk egindako hausnarketarekin zehazteke. Helburua Bordeleko bileran azalpen bateratua egitea izan zen. Bestetik, Euskadi-Akitania bitariko kooperazioaren esparruan lan-gai berriak lantzeko proposamenei buruz eztabaidatu zen. Euroeskualdean berrikuntza eta teknologia transferitzearen proposamenari eutsi zitzaion, beste gai interesgarrien artean, Euskadiko eta Akitaniako agintariek planteatu baitzuten.

II. KAPITULUA

Euskadiko EGABren Legean ezarritako eginkizunak



1. ARAUGINTZA

1.1. Irizpenak

1/14 IRIZPENA, krisian dauden enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak xedatzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko abenduaren 13a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko urtarrilaren 10a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urtarrilaren 15ean egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

2/14 IRIZPENA, ikuskizun publiko eta olgeta-jarduerei buruzko lege-aurreproiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2013ko abenduaren 20a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko urtarrilaren 17a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urtarrilaren 29an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

3/14 IRIZPENA, 327/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen, bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko martxoaren 17a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko martxoaren 27a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko apirilaren 11n egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

**4/14 IRIZPENA, 2014-2016rako Industrializazio Planari buruzkoa.
Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko martxoaren 19a.**

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko apirilaren 8a eta 11.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko apirilaren 11n egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

5/14 IRIZPENA, emakume nekazarien estatutuaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko maiatzaren 23a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko ekainaren 11.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko ekainaren 30ean egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

6/14 IRIZPENA, 2012ko urriaren 3ko HEZIBI Agindua aldaratzearen Aginduari buruzkoa

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko ekainaren 5a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko ekainaren 19a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko ekainaren 30ean egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

7/14 IRIZPENA, nekazaritza, elikadura, arrantza eta basoko produktuen sustapena laguntzeari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko ekainaren 11.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko ekainaren 25a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko ekainaren 30ean egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

8/14 IRIZPENA, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko ekainaren 12a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko ekainaren 27a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko uztailaren 9an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

9/14 IRIZPENA, ondorengoei buruzkoa: Seme-alabak beren kargura dituzten familiei babesteko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektua, 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familiaren politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua eta 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzak arautzen dituen, aldatzeko dekretu-proiektua.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko uztailaren 16a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko irailaren 17a eta 26a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urriaren 3an egin du eta aho batez onartu du Irizpen bateratu hau egitea.

10/14 IRIZPENA, Mendekotasunen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa. Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko irailaren 1a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko irailaren 24a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urriaren 3an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

11/14 IRIZPENA, hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko irailaren 10a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko irailaren 30a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urriaren 3an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

12/14 IRIZPENA, merkataritza-jardueraren Legearen hirugarren aldaketari dagokion lege-aurreproiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko irailaren 4a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko irailaren 24a eta 30a eta urriaren 3a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urriaren 3an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

13/14 IRIZPENA, Euskadiko Turismoaren Mahaia sortzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko irailaren 26a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko urriaren 10a eta 17a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko urriaren 24an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

14/14 IRIZPENA, industria-jardueren hasiera eta funtzionamenduari nahiz Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari dagokien araubide orokorra arautzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko urriaren 20a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin

Batzordea: Garapen Ekonomikorako Batzordea

Bilera: 2014ko azaroaren 3a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko azaroaren 7an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

15/14 IRIZPENA, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari dagokion Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2014ko urriaren 9a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Bilera: 2014ko urriaren 22a.

Emaitza: Batzordeko kideen proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzi den irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik irizpen-proiektua egin da, EGABren Osoko Bilkurak lantzeko.

EGABk Osoko Bilkuraren saioa 2014ko azaroaren 7an egin zuen eta horretan aho batez Irizpena egitea onartu zen.

1.2. Irizpenen eraginaren jarraipena

Araua onetsitakoan, informaturiko dokumentuari buruz (Dekretu Proiektua edo Lege Aurreproiektua) gure irizpenak eginiko gogoeta espezifikoko bakoitza oso-osorik edo zati batez bildu den edo bildu ez den aztertzen da.

Hori kontuan izanik, hiru taldetan banaturiko tipologia bat ezartzen dugu: Zenbait irizpenetan, gogoeta espezifikoen %50 baino gehiago jaso da onetsitako arauan (*taulan berdea*), beste batzuetan gogoeta espezifikoen %20 -%50 bitartean bildu da eta (*oria*), hirugarren multzoan, berriz, gogoeta espezifikoen %20tik behera jaso da onetsitako arauan (*gorria*).

2014AN ONETSITAKO ARAUEN JARRAIPENARI BURUZKO TXOSTENEN BALANTZEA

Erref. Irizpena	Araua	Irizpen Data	Gobernu Kontseilua- ren Onespena	Irezipenaren Eragina
7/2012	Euskal Autonomia Erkidegoan lanbideheziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen Dekretu Proiektua	25.04.2012	01.04.2014	46% ●
5/2013	Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu proiektua	16.09.2013	08.04.2014	0% ●
8/2013	Euskadiko artisau elikagaigintzako ekoizpenaren Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektua	13.12.2013	25.03.2014	0% ●
1/2014	Krisian dauden enpresak berregituratzeko eta suspertzeko laguntzak ezartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa	15.01.14	29.07.2014	28% ●

2/2014	Ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerari buruzko legearen aurreproiektuaren ingurukoa	29.01.2014	01.07.2014	57%	●
3/2014	327/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen, bigarrenaldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.	11.01.2014	15.01.2014	0%	●
4/2014	2014-2016 Industrializazio Planari buruzkoa	11.04.2014	11.04.2014	15%	●
5/2014	Emakume nekazarien Estatutuaren Legearen Aurreproiektua	30.06.2014	04.11.2014	21%	●
6/2014	Gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko HEZIBI programaren oinarri arautzaileak ezartzen duen agindu bateratua aldatzeko agindu proiektua	30.06.2014	10.12.2014	0%	●
8/2014	Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua	9.07.2014	16.09.2014	70%	●
10/2014	Mendekotasunen Legearen Aurreproiektua	03.10.2014	08.12.2014	69%	●
12/2014	Merkataritza-jardueraren Legearen hirugarren aldatzeko dagokion lege-aurreproiektua	03.10.2014	30.12.2014	0%	●

- %20 baino gutxiago
- %20 eta %50
- %50 baino gehiago

Laburpen Orokorra

Egiazta dezakegunez, onetsitako irizpenetatik %58 (7) %20tik beherako onarpen maila du, %25k (3) %20-%50 bitartekoa eta %17k (2) %50etik gorako onarpen maila du. Orotara, maila ertaina edo handia lortu da gobernuaren onarpenean irizpenen %42an, eta hori pozik egoteko modukoa da.

Irizpenen onarpen maila	Irizpen Kop	Irizpen Guztien Gaineko Portzentajea
<%20	7	%58
%20 eta %50	3	%25
>%50	2	%17
GUZTIRA	12	%100

2. EAE-KO EGOERA SOZIOEKONOMIKOARI BURUZKO MEMORIA EGITEA

2013. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Egoerari buruzko Txostena Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak aho batez 2013ko ekainaren 30ean, hain zuzen ere, EGA-Bri buruzko Araudiak xedatutako epeen barruan, egindako saioan onartu zuen.

Hala, erakunde honi atxikitzen zaion legezko agindua, hau da, urtero EAEn ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko gogoetak azaltzen dituen txostena egin eta Gobernuak nahiz Eusko Legebiltzarrak lantzeko aurkeztea bete zen.

Lan Batzorde arduradunaren burua Inmaculada Gallastegui andrea izan zen eta honako kideak izan zituen: Antxon Tomasena jn. eta Eduardo García jn. CC.OO. sindikatutik; Maribel Ballesteros and. eta Raúl Arza jn. UGT sindikatutik; Carlos Pereda jn., Eduardo Aréchaga jn. eta Jaime Fernández jn. CONFEBASKetik; Pedro Martínez de Alegría jn. Aurrezki Kutxa eta finantza-erakundeetatik; Mikel Ruiz jn. Hirugarren Sektoreko erakundeetatik eta Javier Muñecas jn. ASLETik. Halaber, Felicísimo Ayastuy jn., Iñaki Barrenetxea jn., Aitor Bengoetxea jn. eta Carlos Trevilla jn. izan ziren adituen taldeko kideak diren neurrian eta Arantza Unzurrunzaga and. horren idazkari tekniko bezala.



Dokumentazio teknikoa Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga andreek, Euskadiko EGABren Azterlan eta Proiektuetako arduradunek, gauzatu zuten eta Batzordean izendatuak dauden erakundeek nahiz adituek egindako ekarpenak erantsi ziren.

2013ko txostena burutzeko, Lan Batzordeak sei bilera egin zituen 2013ko azaroaren 29an eta 2013ko martxoaren 14an, apirilaren 11n, maiatzaren 9an, maiatzaren 30ean eta ekainaren 13an. Aipatu datetan “2013ko EAeko Gizarte eta Ekonomia Txostenaren” proiektuari buruzko ondoz ondoko emanaldiak onartu eta EGABren Osoko Bilkurak lantzeko aurkeztu ziren.

Euskadiko EGABk egiten duen hamazazpigarren txostena da eta ekonomia-nahiz gizarte-errealitatearen daturik garrantzitsuenak aztertzen ditu. Era berean, Batzordea osatzen duten eragile ekonomiko eta sozial desberdinen diagnostiko partekatua eskaintzen du.

2013. urtean EAeko Ekonomia eta Gizarte Egoerari buruzko Txostenak, “laburpen eta gogoeta orokorrei” buruzko azken atala izateaz gain, honako eduki eta blokeak ditu:

I) KAPITULUA EAEn jarduera ekonomikoa garatzeko baliabideak

- 1. Giza baliabideak EAEn:**
 - Demografia eta immigrazioa
 - Hezkuntza eta hezkuntza-sustapena
- 2. Produkzio-egitura eta berrikuntza EAEn:**
 - Egitura produktiboa
 - I+G+baren eta IKTen jarduerak
- 3. Natur ingurunearen egoera EAEn**

II) KAPITULUA Ekonomia EAEn

- 4. Kanpoko ingurune ekonomikoa**
- 5. EAeko abagune ekonomikoa**
- 6. Prezioak, kostuak eta errentak**
- 7. EAeko sektore publikoa**
- 8. Gizarte-ekonomiaren kontuak EAEn**
- 9. Lan-merkatua**
- 10.**

III) KAPITULUA Bizi-kalitatea EAEn

1. **Familiak eta lan-bizia nahiz bizi pertsonala bateratzearen beharra**
2. **EAEko bizi-baldintzak**
 - Pobrezia eta baztertzea
 - Pertsona minusbaliatuen bizi-baldintzak
3. **Osasuna eta osasun-sistema**
4. **Hirigintza eta etxebizitza**
5. **Aisialdia eta kultura**

IV) KAPITULUA Gizarte-babesa EAEn

1. **Gizarte-zerbitzuak EAEn**
2. **Gizarte-segurantzaren prestazioak EAEn**
3. **Pobreziaren eta gizarte-baztertzearen kontrako neurriak EAEn**
4. **Gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak EAEn**

V) KAPITULUA Jarduera arautzailea EAEn

VI) KAPITULUA Laburpena eta gogoetak

Gizarte eta Ekonomia Txostenaren edukiei hedapen handiagoa eskaintzeko, aurrerapena eta uztailean azkeneko aurkezpen-jardunaldia egin ziren. Aurrerapenak hurrengo edukiak izan zituen:

2013ko Gizarte eta Ekonomia Txostenaren AURRERAPENA, 2014ko maiatza

Aurkezpena

1. **Giza baliabideak EAEn: Demografia eta immigrazioa**
2. **Familiak eta lan-bizia nahiz bizi pertsonala bateratzearen beharra**
3. **Bizi-baldintzak EAEn**
4. **Gogoetak**

3. EKIMEN PROPIOKO AZTERLANAK

3.1. Ekimen propioa

2014. urtean zehar Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak hainbat lan garatu du ekimen propioko bi txosten burutzeko.

Lan-lerro horri 2003. urtean ekin zitzaion eta, horri esker, hautatutako arloetan sakondu ahal izan da, gure herrialdeko ekonomia eta gizartea garatzeko garrantzi berezia baitute. Azterketa konplexuak dira eta horien bitartez EGABk iritzi-sortzaile bezala bere zeregina garatzen du. Nolanahi ere, aipatu funtzioa 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko EGABri buruzkoak, 3.f) artikuluan onartzen du.

KRISI EKONOMIKOAREN ESPARRUAN EAEn LURRALDE-DESOREKAK

Lan Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Arduraduna: Arantza Unzurrunzaga

Helburua

- EAEko eskualdeen errealitatearen ezagutzan sakontzea eta, horretarako, eskura dagoen informazio estatistikotik abiatuta, giza eta ekonomia-ezaugarri nagusiak laburki aurkeztea.
- Eskualdeetako informazioari, betiere eskura badago, EAEko hiru hiriburuei buruzkoa eta Lurralde Historikoen batez bestekoak erantsiko zaizkio.
- Krisiaren inpaktua produkzio-sisteman eta bizi-baldintzetan aztertzea; xede horrez, analisia 2008-2012 aldian finkatuko da, betiere datu eskuragarriak badaude.
- Adierazleen panel laburtua definitzea, eskualdearen eremutik ekonomia-eta gizarte-eboluzioaren jarraipena sistematizatu ahal izateko.
- Kasu arrakastatsuak identifikatzea: posizio onena duten eskualdeak eta arrazoiak: ikuspegi abantailatsutik egungo abaguneari aurre egitea ahalbidetzen dizkieten indarrak.

- Baldintza okerragoak dituzten beste zona batzuetarako kasu arrakastatsuetatik lortutako ikasketen aplikagarritasuna balioztatzea.
- Lurralde-desorekak murrizten laguntzeko kohesio-estrategiak diseina daitezen, gomendio-multzoa lortzea.

Faseak

1: Diagnostikoa

I. Sarrera. Testuingurua eta planteamendu orokorra. Helburuak. Metodologia. Eskualdeen arabera banatzea. Adierazleen panela eta iturriak.

II. Krisiaren lurralde-inpaktua. Lurraldeak eta eskualdeak. Datu orokorrak (biztanleak, enplegua, errenta, enpresak...). 2008-2013 eboluzioa. Krisiaren inpaktua ikuspegi ekonomikotik (produkzioa, enplegua) eta sozialetik (langabezia, errenta, pobrezia...).

III. Balantze grafikoa. Eskualde-errealitatearen jarraipen-adierazleei buruzko panela definitzea. Diagnostikoaren laburpen grafikoa (MAPAK)

2: Alderatzea eta ondorioak

IV. Diagnostikoaren laburpena eta ondorioak.

Lanen eboluzioa eta egindako bilerak.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2014. urtean zehar seitan bildu zen, azterketa honen lanekin aurrera egiteko. Dena den, planteamendu teknikoa jada 2013. urtean zehaztua gelditu zen.

Azkenik, azterketa Batzordearen Osoko Bilkurak 2014ko urriaren 3an egindako saioan aho batez onartu zuen.

EGABeko eskualdeko datu-bankua

Azterlanak ikuste-euskarri elkarreragilea emanez, CES-eko web-orrian ostatu emanda osatzen du Datu-Banku batekin eskualdeko.

Datu-bankua EAEn eskualde mailan dagoen informazio estatistiko

prebenitzeko eta babesteko dauden neurriak deskribatzea, besteak beste, hipoteka betearazteko prozesuen esparruan neurriak.

- Gainzorpetzeari buruz herrialde europarretan prebentzio- eta babes-neurriak, judizialak eta judizioz kanpokoak, deskribatzea, hipoteka betearazteko prozesuei buruzkoak barne.
- Arreta berezia eskaini zaie Frantziako eta Alemaniako antolamenduei.

Edukia

1. kapitulua. Sarrera eta azterketaren planteamendu orokorra.

2. kapitulua. Familien gainzorpetzearen erroak eta egitura-arrazoiak.

3. kapitulua. EEn, Estatuan eta EAEn zorpetzearen ezaugarriak eta dimentsioak.

4. kapitulua. Etxeetan zorpetzearen ondorioak.

5. kapitulua. Espainiako lege-antolamenduaren analisia eta judizioz kanpoko neurriak.

6. kapitulua. Europako sistema juridiko eta judizioz kanpoko neurrien analisi alderatua.

7. kapitulua. Laburpena, gogoetak eta gomendioak

Lanen eboluzioa eta egindako bilerak

Azterketaren jaurtiketa 2012. urtearen amaieran izan zen. 2013. urtean zehar Lan Batzordeko kideek ondoz ondo azterketaren emanaldiak jaso eta hobetzeko ekarpen nahiz iradokizun ugari gauzatu zituzten. Ildo horri jarraiki, Batzordeak izandako bilera desberdinetan onartu ondoren erantsi ziren.

Lana 2014. urteko lehenengo bi hilabeteetan amaitu zen, Lan Batzordea urtarrilaren 22an bildu eta EGABren Osoko Bilkurak otsailaren 19ko saioan landu eta gehiengoz onartu ostean.

ENPRESA DINAMISMOA, ABERASTASUNA ETA ENPLEGUA SORTZEA: EAE-KO AZTERKETA

Lan Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea

Arduraduna: Leire Ozerin

Helburua

Zehatz-mehatz, hurrengoak lortu nahi dira:

- Euskal enpresek EAEko aberastasuna eta enplegua nahiz gizarte-garapena sortzeari egindako ekarpena eta krisi ekonomikoak aldagai horietan izandako inpaktua ezagutzea.
- Euskal enpresek jarduera garatzen duten giroa eta ingurunea (“ekosistema”) aztertzea.
- EAEn enpresa-garapen handiagoa saihesten duten hesiak identifikatzea.
- Beste herrialde europar batzuekin ikuspegi alderatua erabiliz, EAEn enpresa-dinamismoari nahiz -garapenari eta, bide batez, aberastasun, enplegu eta ongizate handiagoa sortzeari lagun diezaioketen faktoreak eta politikak ezagutzea.

Edukia

1. kapitulua. Sarrera eta azterketaren planteamendu orokorra.

2. kapitulua. Euskal enpresa eta EAEn aberastasuna, enplegua nahiz gizarte-garapena sortzea.

3. kapitulua. EAEko enpresa-giroa.

4. kapitulua. EAEn enpresak garatu eta sortzeko orduan laguntza-politiken eta inguruneen analisi alderatua.

5. kapitulua. Laburpena, gogoetak eta gomendioak.

Lanen eboluzioa eta egindako bilerak

Azterketaren jaurtiketa 2013. urtearen amaieran izan zen. 2014. urtean zehar Lan Batzordeko kideek ondoz ondo azterketaren emanaldiak jaso eta hobetzeko ekarpen nahiz iradokizun ugari gauzatu zituzten. Ildo horri jarraiki, Batzordeak izandako 12 bileretan onartu ondoren erantsi ziren.

Emaitza bezala, martxoaren 14an Lan Batzordeak jaurtikitze-dokumentua onartu zuen eta bertan edukia eta metodologia zeuden. Apirilaren 30ean, ordea, enpresetarako galdeketaren metodologia zehaztu zen.

Maiatzetik uztailera bitartean II. Kapituluak idazten eta bateratze-lana egiten aurrera egin zen. Irailaren erdialdean III. Kapituluaren inguruko eztabaida hasi zen eta urriaren amaierarako nahiko itxia gelditu zen.

Urriaren 17an burututako bileran IV. Kapituluaren egitura eta edukia lehenengoz aztertu ziren.

Irten zen Batzordeak azterketa honi buruz azkeneko bilera urriaren 24an egin zuen eta sartu behar zen Batzordeko kideei dokumentu bateratua, 1etik 4ra bitarteko Kapituluak zituen, ematea erabaki zuen, horrek onar zezan.

Azterlanarekin harremanetan sartzeko, Batzorde berriaren lehenengo bilera abenduaren 19an egin zen eta berehalako lan-egutegia erabaki zen.

4. TRIBUNAK ETA HITZALDIAK

“FAMILIAREN GAINZORPETZEA. EAEN ANALISIA” EKIMEN PROPIOKO AZTERKETA AURKEZTEA

Bilbon, 2014ko apirilearen 1ean

Apirilaren 1ean, “Familiaren gainzorpetzea: EAEn analisia” ekimen propioko azterketaren aurkezpena aprobetxatuz, Euskadiko EGABk ekitaldi bat antolatu zuen eta hurrengo hizlariak parte hartu zuten: Juan M^a Otaegui jaunak, EGABko presidentea, eta Leire Ozerin andreak, Azterketa eta Proiektuen arduradunak.



EAEKO 2013KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN AURKEZPENA

Bilbon, 2014ko uztailaren 16an

Uztailaren 16an, EAEn 2013. urteko Gizarte eta Ekonomia Txostenaren aurkezpena erabiliz, Euskadiko EGABk ekitaldi bat antolatu zuen eta Inmaculada Gallastegui andreak, EGABn Lan Batzordeko presidenteak eta lanaren arduradunak, urteko txostena aurkezteaz gain, Antón Costas jaunaren hitzaldia izan zen. Bartzelonako Unibertsitatean Politika Ekonomikoaren katedraduna da.

Costa irakaslearen hitzaldiak “krisiaren kudeaketa. Nola aurre egin etorkizunari?” izenburua izan zuen.



III. KAPITULUA

Erakundearen jarduera eta agerraldiak



1. 2014KO JARDUERA INSTITUZIONALA

URTARRILAK

9a

Presidentea, Ricardo Barkala, Enplegu eta Lan sailburuordearekin eta Xabier Ochandiano, Enpleguan Berrikuntza eta Plangintza zuzendariarekin bildu zen.

17a

ADEGIk Miramongo Parke Teknologikoaren auditorioan antolatuta, presidentea lan-harremanen eredu berriaren aurkezpenean izan zen.

23a

Lehendakariak gonbidatu ondoren, presidentea Euskadiko Artxibategi Historikoa inauguratzeko ekitaldira joan zen.

28a

1878. urtean lehenengo Kontzertu Ekonomikoa onartu ostean, presidentea 135. urteurrenean Kontzertu Ekonomikoari buruzko Mintegian izan zen.

30a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunan” izan zen Arantza Quiroga, Euskal Autonomia Erkidegoko Alderdi Popularraren buruarekin.

OTSAILAK

5a

Presidentea “EUROPA FORUMA, Euskadi Tribunak” antolatutako lan-gosarira hurbildu zen Patxi Zabaleta, ARALARreko koordinatzaile nagusiarekin.

12a

Presidentearen AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARREKO Enplegu eta Gizarte Politiketako Batzordearen aurrean “Enplegu Planaren Irizpenari” buruz, Arri Zulaika parlamentariak eta EH BILDU taldeko

ordezko bozeramaileak eskatu ostean.

17a

Presidentea “EUROPA FORUMA, Euskadi Tribunak” antolatutako hitzaldian izan da, Unai Sordo, Euskadiko CCOO sindikatuaren idazkari nagusiarekin batera.

24a

EGABren 2013ko jardueri buruzko txostena Ricardo Barkala Enplegu eta Lan sailburuordeari / Xabier Ochandiano EGABn Enpleguan Plangintza eta Berrikuntza zuzendariari aurkeztea.



26a

EGABren presidentea eta idazkari nagusiak 2013ko jardueri buruzko txostena Bakartxo Tejeria, Legebiltzarreko buruari aurkeztea.

MARTXOAK

12a

“EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna” informazio-gosaria Raúl Arza, UGT Eskadi Idazkari Nagusiarekin.

18a

Presidentea hizlari bezala esku hartu du “burutza politikoak, herri-politikak eta gizarte-kohesioa” hitzaldian, “enplegua eta kohesio politiko nahiz soziala: Europa berrirako proposamenak” EUROBASKEk antolatutako ekitaldiaren barruan.

26a

EGABn “familien gainzorpetzea: EAEn analisia” ekimen propioko azterketa Eusko Jaurlaritzako ordezkariari aurkeztea. Buruak Josu

Erkoreka, Herri Administrazio eta Justizia sailburua, eta M^a Covadonga Solaguren, Etxebizitza sailburuordea, izan dira.

28a

Hainbat programaren bitartez gero eta gehiago pertsonak parte hartzen duten enpresa-ereduetarantz eboluzionatzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak egindako apustuan, presidentea txosten batekin “pertsonen partaidetzan oinarritutako enpresa-ereduei” buruzko jardunaldian parte hartu du.

31a

“Familien gainzorpetzea: EAEn analisia” ekimen propioko azterketa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren buruari, Juan Luis Roblesi, aurkeztea. Berarekin EAEJANko ordezkari izan zen.



APIRILAK

4a

EAEJANren hitzaldi-aretoan “justizia krisialditan” izenburupean antolatutako hitzaldira joan da presidentea.

9a

Presidentea Elkargiren “susperraldi ekonomiko iraunkorrerantz joateko oinarriak” 25. topaketan izan da. Moderatzaile-lanetan Pedro Luis Uriartek jardun du.

28a

EGABren ordezkari izan da Bordelera joan da, Alain Roussetek, Akitaniako Eskualde Batzordeko buruak, eskainitako harrerara. Izan ere, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Batzarrean Burutza Iñigo Urkulluri, Eusko

Jauraritzako Lehendakariari, pasa zaio.

30a

Presidentea Arantza Tapia Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako sailburuarekin bildu da.

MAIATZAK

5a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunal” ekitaldian izan da Izaskun Bilbao eurodiputatu eta Europar Parlamenturako hauteskondeetan Europaren aldeko Koalizioan EAJ-PNVko hautagaiarekin.

7a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna”ra joan da Pello Urizar EAKo idazkari nagusiarekin.

12a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunal”ra bertaratu da, Carlos Iturzaiz Europako Parlamenturako hauteskondeetan PPko hautagaiarekin.

14a

Presidentea eta idazkari nagusia “enpresa eta enpresaburua, susperraldi eta garapen ekonomikoaren eragileak” izenburupean CEBEKEk Batzar Nagusia egiteko antolatutako enpresa-topaketan izan dira.

19a

Presidentea gazteen integrazio profesionalari Novia Salcedo VI. Sariak emateko ekitaldira joan da Arriaga antzokira.

23a

“Familien gainzorpetzea: EAEn analisia” ekimen propioko azterketa Elena Unzueta Kontsumobideko zuzendariari aurkeztu zaio.

27a

Presidentea “krisitik irteteko kontakizun objektiboa” ERKIDEx

antolatutako hitzaldira joan da. Hizlari bezala Antón Costas izan dute.

29a

Presidentea eta idazkari nagusia ADEGI enpresaren egunera bertaratu dira Donostian maiatzaren 29an “enpresaren kultura berria” izenburupean. Bertan Mario Ohoven, Alemaniako Enpresa Txiki eta Ertainetarako Elkarteko (BVMW) burua, eta Fidel Delgado, psikologo kliniko eta familia- nahiz pertsona-orientatzailea, izan dira.

30a

Idazkari nagusia “DATORREN ENPRESA” mahai-inguruan izan da, ASLEk bere Batzar Nagusiaren esparruan antolatu ostean.

EKAINAK

2a

Idazkari nagusia “Arabako enpresa-liderrek erantzuten dute” izenburupean Arabako enpresaburuen SEAk antolatutako topaketara bertaratu da.

4a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunalan” informazio-gosarian izan da Juan Luis Ibarra Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko buruarekin.

10a

Presidentea Ricardo Barkala Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan sailburuordearekin bildu da.

12a

Batzar Nagusia dela-eta, Arabako enpresaburuen SEAk antolatu ostean, presidentea eta idazkari nagusia “ekonomia etorkizunerako oinarriekin” izenburupean José Luis Feitoren, CEOeko Ekonomia Batzordeko buru eta IEEko buruaren, hitzaldira joan dira.

26a eta 27a

Presidentea eta idazkari nagusia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte

Arazoetarako Batzordeen urteko topaketan izan dira. Aurten Andaluziako EGABk antolatu du Sevillan. Lehenengo egunean “gizarte-elkarrizketaren erronkei” buruzko jardunaldia izan zen eta bigarren eguneko lan-jardunaldian Erkidegoetako EGABek “Erkidegoetako EGABen erronkak eta etorkizun-ikuspuntuak” landu zituzten.



UZTAILAK

11

Presidenteak eta idazkari nagusiak, EGABren ordezkarizarekin batera, Iñigo Urkulu Lehendakariari 2013ko EAEko Ekonomia eta Gizarte Txostena aurkeztea.



15a

Presidentek eta idazkari nagusiak 2013ko EAeko Gizarte eta Ekonomia Txostena Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko buruari aurkeztu diote.

**IRAILAK**

10a

Presidentea Leioan UPV-EHUren 2014-2015 ikasturtearen hasieran izan da.

12a

Presidentea Bilboko Campuseko paraninfoan Deustuko Unibertsitatearen 2014-2015 ikasturtearen hasieran izan da.

19a

Presidentea Mondragon Unibertsitatearen (MU) 2014-2015 ikasturtearen hasierara joan da.

URRIAK

3a

Presidentearen eta idazkari nagusiaren bilera CRLko beren homologoekin.

13a

Novia Salcedok antolatu ondoren, presidenteak Bilbao Youth Employment Forum 14 prestatze-batzarrean parte hartu du.

22a

Presidentea Euskal Autonomia Erkidegoko JANren egoitzan 2014-25 Lege Urtea irekitzeko harrera-ekitaldian izan da.

26a

Idazkaria Eusko Jaurlaritzako Hernando Lacalle Aurrekontuen zuzendariarekin eta Juan María Barasorda, Herri Funtzioaren zuzendariarekin bildu da.

29a

Presidentea eta idazkari nagusia, Costa Ricako, ordezkariarekin bildu dira, EGABren funtzionamendua azaltzeko.

AZARROAK

3a

Presidentea E“EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunalan” izan da Juan M^a Aburto Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuarekin, Forum Ekonomia Berriak antolatu ostean.

6a

Idazkari nagusia Nerea López Uribarri, Ondare eta Kontratazio zuzendariarekin bildu da.

13a

ASLEk antolatu ondoren, presidenteak Txemi Cantera 2014ko Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Saria emateko ekitaldian parte hartu du.

19a

Presidentea “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna” informazio-gosarian izan da, Idoia Mendia, PSE-EE PSOeko idazkari nagusiarekin.

20a

ELKARGI SGR erakundeak antolatuta, presidenteak gosari-solasaldian parte hartu du. Bertan Luis Garicano izan da “mendebaldeko etorkizun ekonomikoa: geldialdia eta desberdintasuna?” hitzaldiarekin.

25a

Presidenteak Lehendakariaren egoitzan Joxe Mari Korta Sariak emateko ekitaldira joan da, Arantza Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak gonbidatu ostean.

ABENDUA

1a

Presidenteak “EUROPA FORUMA. Euskadi Tribunal” izan da, Jon Darpon, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuarekin.

3a

Presidentearen eta idazkari nagusiaren bilera CRLko beren homologoekin.

19a

Presidenteak 2014-2020rako AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdeari buruzko Plan Estrategikoaren aurkezpenan parte hartu du. Hendaian izan da eta Akitania-Euskadi Euroeskualdearen presidenteak eta Lehendakariak, Iñigo Urkulluk, eta Alain Roussetek, Girondoko diputatuak eta Akitania Eskualdeko Batzordearen buruak, gonbidatu dute.

23a

Presidenteak Euskal Gizarteko ordezkarietzat Lehendakariak egindako harreran izan da.

IV. KAPITULUA

Jarduera Europako lankidetzan esparruan

1. EUROPAKO LANKIDETZAREN EREMUKO JARDUE

Euskadiko EGABk bitariko kooperazioa du *Conseil Economique, Social et Environmental Régional d'Aquitaine* (CESER) erakundearekin. Horri esker, elkarrizketa etengabea da eta EAE nahiz Akitaniarako interes erkidea duten gaiei buruz ikuspegi partekatua garatzen da.

2004. urtean lehenengo lan-batzordea eratu zen eta bi EGABtako ordezkariak izan ziren batzordekide. Akitaniaren eta EAEn artean hurbiltasuneko turismoaren bultzada, iraunkortasun-irizpideak errespetatzen zituena, landu zuen. Halaber, beste merkatu batzuei begira, EAE eta Akitaniaren artean eskaintza turistiko erkidea zehaztu zen.

2007. urtean jarduera berriei ekin zitzaion batera. Hala, garraioaren eremuan lanean hasi zen eta trafikoa bizia den mugaz haraindiko ingurunean Akitaniaren nahiz EAEn artean ondasunen eta pertsonen zirkulazioarekiko oztupoak konpondu eta hobetzeko proposamenak formulatu nahi izan ziren, funtsezkoa baita Europaren eta Iberiar Penintsularen arteko harremanetarako..

2009. urtean bidaiarien hurbiltasunezko garraioari buruzko dokumentuaren aurrerapena egin zen eta 2013. urtean txosten bateratua onartu ere bai, aipatu dokumentua eguneratu eta zabaltzeko. Bertan bidaiarien nahiz merkantzien garraioari dagokionez, gomendio- eta proposamen-multzoa dago. Era berean, Euskadiko EGABk eta Akitaniako EGABk **Batzorde Europarrak Garraioaren Europaz Haraindiko Sareen Politika Berraztertzeari (RTE-T)** buruz irekitako kontsulta-prozesuan parte hartu zuten. Nolanahi ere, prozesuan zehar eratu ziren kontsulta-dokumentu desberdinei ekarpenak egin zizkieten.

2011ko abenduaren 12an Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniako Eskualde Batzordeak *Euskadi-Akitania Euroeskualdea* sortzeko dokumentuak sinatu ostean, bi eskualdeen artean kooperazio-espazio zabalagoa, egituratuagoa eta biziagoa ireki zen. Horrez gain, bi EGABen arteko lana erraztu zen. Are gehiago, Euroeskualdearen batzar-organoak kontsulta-eskaerak egin zitzakeen.

Testuinguru honetan, 2012ko uztailaren 18an Hendaian, Euroeskualdearen egoitzan, topaketa bat izan zen eta Euskadiko nahiz Akitaniako gobernuetako

ordezkariak, EGABen presidenteak eta *Euroeskualdearen* zuzendaria bildu ziren. Horretan bi kontsulta-organoei Plan Estrategikoa garatzeko orduan partaidetza eskatu zitzairen. Eskaerari erantzunez, Euskadi eta Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek Plan Estrategikoaren irisgarritasun-ardatzari eta modu-aldaketari buruzko ekarpenak egiteko konpromisoa hartu zuten. Gauza bera egiteko prest zeuden hazkuntza iraunkor, adimentsu eta barneratzailerako laguntza-ardatzaren gai bereziekin.

Lanak, garraioan eta energia berriztagarrietan oinarritutakoak, Euroeskualdeko Batzarrari 2013ko azaroaren 19an entregatu zitzaizkion, Hendaian bere egoitzan bildu ostean. Euskadiko EGAB eta Akitaniako CESERen ordezkariak batera aurkeztu zituzten eta, ondoren, Batzarra osatzen zuten Euskadiko nahiz Akitaniako agintarientzat galdera-txanda ireki zen.

2014ko otsailaren 28an Bordelen, Euskadiko eta Akitaniako EGABen ordezkariak, Juan María Otaegui eta Luc Paboeuf presidenteak buru zirela, lanak Akitaniako Eskualdeko Batzordearen presidenteari eta Euskadi-Akitania Euroeskualdearen presidenteari, Alain Rousseti, aurkeztu zituzten. EGABek planteatutako gomendio nagusiak eztabaidatzeaz gain, Rousset presidenteak etorkizuneko lanetan kontuan hartzeko hainbat gai eta arazo proposatu zituen.

2014ko
abenduaren
19an Hendaian
Lehendakari eta
Eskualdearen
presidenteak,
Iñigo Urkulluk,
eta Akitaniako
Eskualde
Batzordearen
presidenteak
Euroeskualdearen
Plan Estrategikoa
ofizialki aurkeztu



zuten.

Bertan Euskadiko EGABren eta Akitaniako EGABren ordezkariak izan ziren eta berariaz aipatzen zen eurek planari egindako ekarpena.

1.1. 2014an lan bateratuak

Euskadiko eta Akitaniako EGABek 2014. urtean zehar ondorengo lanak egin dituzte:

Euroeskualdearen Plan Estrategikoarekiko ekarpenak

Euskadiko eta Akitaniako EGABek eraginkortasunez eta une desberdinetan lagundu dute 2014-2020rako Euroeskualdearen Plan Estrategikoa egiten. Euskadi-Akitania kooperazio-eragile bezala identifikatutako solaskideen barruan egoteaz eta hamarkada bat baino gehiago duen kooperazio-esperientziari buruzko analisia (ikasitakoak eta horren indarrak nahiz ahuleziak) eskaintzeaz gain, Euskadiko eta Akitaniako EGABek garraioaren eta energia berriztagarrien eremuetan ekarpen bereziak, 2013. urtean entregatutakoak, egin dituzte. Gainera, turismoari, garraioari eta energia berriztagarriei buruzko *Focus Group* edo hausnarketa-taldean parte hartu dute. Halaber, kooperazioaren gobernantzari buruzko gaia landu dute eta Plan Estrategikoaren zirriborro desberdinei dagokienez, iritziak eman dituzte.

Berrikuntzaren eta teknologia transferitzearen arloan lana

Ikerketa nahiz enpresa eta enpresa-kooperazioaren arteko loturan Euroeskualdearen Plan Estrategikoari dagokion ardatza gara dadin elementu zehatzak eskaintzeko xedez, Euskadiko eta Akitaniako EGABek berrikuntzaren eta teknologia transferitzearen eremuan lan erkideari ekin diote. Bi eskualdeetan arlo horietan lanean diharduten erakundeen elkarrekiko ezagutza sakonduko da. Hala, sektorearen arabera, gobernantza, antolaketa, funtzionamendua eta egitura karakterizatu nahi dira, baita osagarritasunak eta posizio-aukera erkideak dituzten sektoreetan egite-modalitateetan, eraginkortasunean eta baliabideetan sakondu ere. Xedea Euskadiko eta Akitaniako erakunde nahiz enpresen artean arlo horietan kooperazioa bideratzeko proposamenak eta gomendioak formulatzea da.

1.2. 2014an izandako bilera bateratuak

Lanez arduratutako Euskadiko EGABren lantaldeak izandako barneko bilerez gain, Euskadiko EGABren eta Akitaniako CESRren ordezkariak Lantalde Bateratua Bilbon martxoaren 20 eta 21ean, Bordelen uztailaren 1 eta 2an eta Bilbon urriaren 29 eta 30ean bildu da.

Bilbon, 2014ko martxoaren 21ean

Topaketaren helburu nagusia Euskadi-Akitania Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren aurrerapena zuzenean ezagutzea eta txostenekiko ekarpenekin eta *Focus Group* izeneko antolatzearen bidez prozesu honetan parte hartzea izan zen. Bi gobernuetako ordezkariak, Euroeskualdearen administrazio-aparatuen, AECTren eta Plan Estrategikoa egiten zuzenean nahasitako kabinete teknikoaren partaidetzarekin, aipatu *Focus Group*ak hiru gaiari erreparatu zion eta Euskadiko EGABk nahiz Akitaniako CESERk batera landu dituzte: turismoa, mugaz haraindiko garraioa, energia berriztagarriak eta Euroeskualdean kooperazioaren gobernantza, gai horietan kooperazio-aukeretan sakontzeko eta Plan Estrategikoan gelditu behar diren aukerei buruz erantzun zehatzak lortzeko. Halaber, bilera batera ekin beharreko lan berrien gaiari buruzko erabakiak hartzera bideratu zen.

Bilbon, 2014ko uztailaren 1ean eta 2an

Bi ordezkariak topaketak helburu bikoitza izan zuen. Batetik, Euskadi-Akitania Euroeskualdearen Plan Estrategikoari buruzko egoera ezagutzea eta azkeneko aurrerapenei dagokionez, iritziak ematea. Bestetik, bi EGABetarako eta Euroeskualderako interes bateratua duen gai berriari buruzko lanak hastea.

Lehenengo gaiari dagokionez, lan-saioek Marc Moulin Euskadi-Akitania Lurralde Kooperaziorako Erakunde Europarraren zuzendariaren partaidetza izan zuten. Euskadi-Akitania Euroeskualdearen Lurralde Garapenaren Estrategiari buruzko Oinarrien Dokumentua aurkeztu zuen. Bi EGABek positiboki balioetsi zuten etorkizuneko plan estrategikoaren egitura eta esku-hartze eta jardueraren arloei buruzko ohar-multzo bateratua adierazi zuten.

Lanerako gai berriari dagokionez, bileran Akitaniako sistemari buruzko aurkezpenak egin zituzten *Aquitaine Développement Innovation (ADI)* erakundeko ordezkariak. Era berean, Akitaniak indar azpimarragarriak dituen sektorean, hain zuzen ere, *Institut des Sciences de la Vigne et du Vin* izenekoaren esparruan mahastizaintza eta ardogintzaren ekoizpenean berrikuntzaren eta teknologia transferitzearen funtzionamenduari buruzko adibide zehatzak jarri zituzten.

Bilbon, 2014ko urriaren 29an eta 30ean

Euskadik 2020. urteari begira erronkei aurre egiteko Zientzia eta Teknologiaren Plan berria egiten aritzeaz gain, horietara moldatzeko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea berraztertzen ari den honetan, bi EGABetako partaideek denboraldi berrirako Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntzaren lerro estrategikoak eta antolakuntzazkoak ezagutu ahal izan zituzten. Horretarako, SPRI eta Innobasqueko ordezkariak aurkezpenak egin zituzten. Espezializazio Adimentsuaren Euskal Estrategiak ere saio hauetan bere tokia izan zuen. Hala, enpresa-gaitasunak eta ahalmen zientifiko-teknologikoak nahiz eskeari erantzuten dizkietenak kontuan hartuta, lehiakorak izatea eta desberdintasuna zehaztea ahalbidetzen duten espezializazio-areak definitzeko prozesua aurkeztu zen eta emaitzak azaldu ziren. Biozientzia, energia eta fabrikazio aurreratua izan ziren aztergai.

Jardunaldiak amaitzeko, AZTI zentro teknologikoa bisitatu zen. Bertan, itsas eta elikadura-ikerketaren eremuan garatzen diren jarduera ugariak ezagutzeaz gainera, Derioko zentroak elikadura-ikerketarako dituen instalazio eta ekipamendu garrantzitsuak ikusi ziren.

2. LANKIDETZA ATLANTIKOKO EREMUAN

2.1. ATLANTIKOKO MUGAZ GAINDIKO SAREA. RTA/ATN

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeen Plataformako eta Atlantikoko Eremuko eskualdeen antzeko erakundeetako kidea da. Atlantikoko Mugaz Gaindiko Sarea deritzo plataformari. Atlantikoko eskualdeen lehiakortasuna eta gizarte eta lurralde mailako kohesioa

indartzeko eskualde arteko lankidetzako proiektuak eta politikak proposatzea du xede, baita Atlantikoko interes komuneko gaiak aztertzeke eta ondoren ezagutarazteke eta erabakiak hartzen diren erakundeetan ebazpenpean jartzeko ere, bereziki Europar Batasunean. Sarearen barnekoak dira Galizia, Kanariar Uharte, Akitania, Poitou-Charentes, Pays-de-la-Loire, Bretainia, Behe Normandia, Limousin eta Erdiko Eskualdeko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Galeseko Ekonomia Foroak eta Instituto Soldadura e Qualidade, ISQ. 2013. urtean, Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea eta Foro Empresarial da Economia do Mar de Portugal delakoa atxiki zitzaizkion, eta sarean formalki sartu gabe, 2014an RTAren Lan-taldean hartu du parte (Irish Sea Maritime Forum). Bertan biltzen dira Irlandako Itsasoaren inguruko Britainiako eta Irlandako eskualdeetako itsas gaiek ukituriko eragileak.

2012ko azaroaren 21etik eta 2014. urte osoan, Euskadiko EGAB eta Juan M^a Otaegui bere presidentea izan dira RTAko presidentzian. RTAren Batzorde Betearazlean, honako hauek ditu lagun: 4. lehendakariordetzan, Akitaniako CESER (horren presidentea Luc Paboeuf da), 3. lehendakariordetzan Galiziako EGAB eta bere presidentea (Corina Porro), 2. lehendakariordetzan Limousingo CESER eta bere presidentea (Jean Pierre Limousin) eta 1. lehendakariordetzan ISQko Joao Paulo Duarte.

Jarduerak

Bere helburuak betetzeko eremuan, Atlantikoko eskualdeentzat kezagarriak diren arloen gaineko azterlanak egiten jardun izan du RTAk hasiera-hasieratik:

- Portuak, hinterland, itsas garraioa eta garraioaren intermodalitatea.
- Itsas segurtasuna
- Berrikuntza
- Itsas energiak

2010ean EBko Kontseiluak Atlantikoko Eremurako Europako Itsas Estrategia egiteko agindua eman zionetik Europako Batzordeari, geroko estrategiako balizko gaiak izan dira RTAren jardueraren ardatza, estrategia hori egiteko prozesuan eta ondoren Ekintza Plana eta proiektu nagusiak egiteko prozesuan lagungarria izan dadin.

Estrategiaren balizko edukiei buruz Europar Batzordeak eginiko kontsultari RTAk eginiko ekarpena da 2011ko azaroaren 21ean argitaraturiko Jakinarazpenaren ondoren areagotu den lanaren oinarria: “Itsas estrategia sustatzea Atlantikoko eremuan”.

Hauexek izan ziren RTAk identifikaturiko jarduketako lehentasunezko esparruak:

- Itsas garraioa eta lurreko loturak.
- Itsasoko baliabideak balioestea.
- Atlantikoa, Europako sarrerako atea eta Afrikarako eta Amerikarako azken sarbidea den aldetik.
- Itsasoaren gaineko ikerkuntza, berrikuntza, prestakuntza eta dibulgazioa garatzea, funtsezkoa baita itsasoa zaintzeko eta ekonomiaren aldetik balioesteko.
- Ekonomia, gizarte eta ingurumen arloak garatzea garapen iraunkorraren ildotik.

Estrategiaren Jakinarazpena hartutakoan, Ekintza Planean elkarrekin biltzen diren lehentasunezko esparruak zehaztu beharra dago. Izan ere, horren inguruko ekarpenak aurkeztu ditu RTAk energia berriztagarrien, itsas garraioaren eta portuen eta itsas segurtasunaren arloetan. Era berean, Atlantikoko Foroaren ekitaldietan hartu du parte, lehentasunezko jarduketak identifikatzeko parte hartzeko ikuspegiaren eta *bottom-up* delakoaren aldetik. Hartara, Horta, Brest, Bilbo eta Cork-eko bere paneletan eta *Steering eta Leadership Group*-en bileretan hartu du parte, eta parte-hartze zuzena izan du Ekintza Plana (*Atlantic Strategy Group*) egiteko prozesu osoa bideratzean, 2014tik talde bakarrean batu ondoren sortua.

Ekintza Plana 2013ko maiatzean onetsi ondoren, Plana abiarazteko baldintzak eta bere gobernantza aztertzeraz eta prestatzeraz bideratu da RTAko jardueraren arreta-gunea. Arlo bi horiek ez zeuden nahikoa zehaztuta Ekintza Planean.

2014ko ekitaldiko jarduerak

Oso jarduera handia izan du RTAk 2014an arlo horretan, eta eremu hauetara hedatu da:

Atlantikorako Estrategia behar bezala egiteko baldintzei buruzko txostena egitea. Oso zabala da RTAk aukeraturiko laneko gaia, eta faseka lantzen denez gero, gaur egun Estrategiaren hasiera operatiboa du ardatz. Ondoren, abiarazte horren jarraipenarekin lotutako beste arlo batzuekin jarraitu da. Izan ere, arlo horiek sakon jakinik, MARE ZNri eta Atlantikorako Estrategiaren gobernantza organoei ekarpenak egin ahal izango dizkie RTAk. Organo horietan parte hartzen du Estrategia ebaluatzeko eta berrikusteko unean. Horrenbestez, ezarritako lan-taldea egun egiten ari den ataza da itsas ekonomiako eragileak Atlantikorako Estrategiaz “jabetzeko” maila zein den jakitea –antolamenduko eta gobernantzako informazioarekin, komunikazioarekin, laguntasunarekin eta tresnekin du zerikusia-, baita eragile horiek beren jarduerak finantzatzeko Europako programen eta funtsen baitan duten funtzionamenduaren ibilbidea eta jarraibideak ere. Azkenik, eragileengandik Atlantikorako Estrategian espero zen eginkizuna tokian bertan betetzeko beharrezko tresnei eta neurriei buruzko gogoeta egin du. Abiapuntua, ageri-agerian, praktikoa da, itsas jarduerekin lotutako sektoreetako eragileengandik eurengandik lekukotasunak biltzea (itsas energiak, ontzigintza, itsas garraioa eta portua, arrantza, akuikultura, turismoa, itsas ikerkuntza...), hain zuzen ere honako hauek jakin ahal izateko: estrategiak Atlantikoko eskualdeetan bertan duen benetako ezarpen maila, estrategiak itsas jardueretako eragileen artean pizten dituen igurikapenak, aurkitzen dituen zailtasunak eta planteatzen diren aukerak baliatzeko beharrezkoak izango liratekeen tresnak. Euskadiko EGAB eta Akitaniako CESER txostengileak dira lan honetan.

RTAk Europar Batasuneko MARE ZNrekin eginiko bilerak.

Europar Batasuneko MARE ZNk deituta, hainbat bilera egin dituzte RTAk eta Europako erakunde horrek.

MARE ZNk interesa erakutsi zuen RTAk Atlantikorako Estrategia behar bezala egiteko baldintzei buruz garatzen duen lanagatik, eta hori dela eta, Euskadiko

EGAB **ekainaren 26an** azaldu zen, RTAko presidentzian duen aldetik, lan horren edukia azaltzeko. Gai bera zela eta, lan-taldeko baterako txostengileak eta presidentea azaldu ziren **urriaren 21**ean itsas ekonomiarekin loturiko sektoreetako eragileengandik jasotako datuak aurkezteko. Datu horiek bildu ziren RTAk Atlantikorako Estrategiaz “jabetzeko” mailari buruz eginiko kontsultarako prozesuan. RTAk, **urriaren 7an**, deialdia jaso zuen, Atlantikoko beste sare batzuekin batera, **Atlantic Stakeholders Platform** abiarazteko hitzaldiari buruzko ideiak aurkezteko eta plataforma hori ezagutarazteko eta garatzeko laguntza eskatze aldera.

Ekitaldi berrietako partaidetza, Atlantikoko Foroaren ondokoa: Atlantikorako Estrategia Ekintza Plan batean garatzeko prozesuan, betiere parte hartzeko eta *bottom-up* delakoaren ikuspegiaren baitan, funtsezko tresna bat izan zen: 5 ekintza tematiko antolatzea 2012an eta 2013an, Atlantikoko kide bakoitzeko bana.

2014an, eta Estrategia finantzatzeko funtsen programa operatiboak egiteko aldian eta stakeholder direlakoek bertan agerturiko interesei erantzuna emateko, ekintza gehigarriak antolatu zituen MARE ZNk, Ekintza Planaren lehentasun bakoitza abiaraztearekin loturiko gai praktikoetara bideratuta: eskualde ultraperiferikoetako hazkunde urdinari eta Europako lurralde lankidetzari buruz, Funchal-en martxoaren 17an eta 18an; Atlantikoko portuei, logistikari eta itsaso garraioari buruz, garapen ekonomikorako eragileak diren aldetik, Xixonen apirilaren 28an eta 29an; ETEentzako proiektuak eta aukerak finantzatzeko posibilitateei buruz, Liverpoolen ekainaren 12an eta 13an. Horietan guztietan parte hartzeko gonbitea helarazi zion MARE ZNk Euskadiko EGABri.

RTAk *Atlantic Strategy Group* delakoan parte hartzea, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkariak izendaturiko kidea den aldetik, Batzordeko kide batekin batera.

Atlantikorako Estrategiaren Ekintza Plana erabaki eta berau abiarazteko fasea hasi ondoren, bat egiteko (*Steering Group* eta *Leadership Group* direlakoak, hain zuzen Estrategiaren Ekintza Plana egiteko prozesuko orientazio politikorako eta zuzendaritzarako erakundeak izanik) erabakia hartu zuen Leadership

Group-ek berak 2013ko abenduaren 4an eginiko bileran. Hala, talde bakarra eratu zen, *Atlantic Strategy Group*, zertarako-eta, antzerako osaera izanik, Atlantikoko eta Europako erakundeetako 5 estatu kideetakoak (Batzordea, Parlamentua, Eskualdeen Batzordea eta Ekonomia eta Gizarte Batzordea), Estrategiaren Ekintza Plana abiarazteko eta jarraitzeko prozesua bultzatzeko eta zuzentzeko erakunde bihurtzeko. Hona hemen Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak *Atlantic Strategy Group*-en izango duen ordezkariak: azken erakundeak izendaturiko Luis Miguel Pariza, Europako EGABko batzordekidea eta Estrategiaren inguruan eginiko irizpenen egilea, eta RTA. RTAren izenean, Arantza Lopez de Munainek jardun zuen, RTAk Euskadiko EGABn duen koordinatzaileak. Hartara, Taldeak Europako Itsas eta Arrantza Gaien Zuzendaritza Nagusian eginiko bileretan parte hartu zuten parte, Bruselan otsailaren 7an eta urriaren 20an eta Funchaleko (martxoaren 17an eta 18an), Xixongo (martxoaren 28an eta 29an) eta Liverpooleko (ekainaren 12an eta 13an) ekitaldietan.

RTAren eta Europako EGABn baterako hitzaldia egitea, “Gizartea Atlantikoko Eskualderako Europako Batasunaren Estrategian” izenburupean. Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak eta RTAk Atlantikorako Europako Estrategia abiarazteko eta bateratzeko prozesuaren eremuan 2011n ezarritako lankidetzaren barruan, Konferentzia egin zen Bruselan **maiatzaren 16an** Europako EGABn egoitzan. RTAk prozesu horretan hartu du parte, Europako EGABk emandako irizpenei ekarpenak eginez, hain zuzen ere Europar Batzordeak Estrategiari buruz eginiko dokumentuen gainekoak. Gainera, Europako EGABk ordezkariak duen foroetan ere hartu du parte. Aipaturiko hitzaldiari esker, komunean jarri ahal izan dira Atlantikorako Estrategian eragina duten ekimenak eta lanak, bi erakundeak lantzen ari direnak. Bestalde, lan horiek hobetu bideratu ahal dira Europar Batzordeak egin beharreko ekimenen testuinguruan, eta indartu egin daiteke Europako EGABn eta RTAren arteko lankidetzak, Ekintza Plana erabakitakoan Atlantikorako Estrategiaren arloan irekitako aldi berrian. 2020ra arteko ibilbide luzea izango du, baina ebaluazio eta berrikuspenerako aldia izango da 2017an.

Euskadiko EGABko eta RTAko presidentea den Juan Maria OTAEGUI eta Europako EGABko presidentearen izenean Europako EGABko batzordekidea

den Luis Miguel PARIZA buru zirela, bi bloke handitan egitaratu zen hitzaldia. Lehenbizikoa, Europako EGABko batzordekideen aurkezpenak bildu ziren bertan. Europako EGABk egungo estrategiei buruz dituen iritziak azaldu zituzten. Luis Miguel PARIZA Atlantikoko Itsas Estrategiari buruz aritu zen, Étéle BARATH Danubioko Estrategiari eta oro har estrategia makroerregionalei buruz eta Stefano PALMIERI Adriatiko-Jonikoko Estrategiaren gainean. Izan ere, gaur egun itsas estrategia estrategia makroerregional bihurtzeko prozesuan daude murgilduta. Bigarrean, berriz, Europar Batzordeko ordezkariak aritu ziren, Juan RONCO MARE ZNren izenean eta Vicente RODRIGUEZ REGIO ZNrean. Atlantikorako Estrategia abiaraztearen arloko beren jarduketa-planei buruzko argibideak eman zituzten. Gainera, RTAko Lan-taldeko presidentea den Isabelle AMAUGER-ek jardun zuen, eta RTAren lanak aurkeztu zituen, Atlantikoko eskualdeetako ekonomiako eragileak Estrategiaz jabetzeko maila aztertu eta jabetze hori errazteko proposamenak egin zituen. Hitzaldia bukatzeko, azken eztabaida izan zen, non agerian utzi baitzen eragile guztiak mugiarazten jarraitu beharra dagoela Atlantikorako Itsas Estrategiak arrakasta izan dezan eta Atlantikoko Eremua aldarrikatzeko bidean aurrera egiteko, lehiakortasun eta kohesio handiagoa sustatzeko Europako lankidetzako bitarteko maila den aldetik.



Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Estrategia Makroerregionalei buruz eginiko lanetan izandako ekarpena: Europako EGABk gonbitea luzatu zion RTAri **azaroaren 26an** antolaturiko jendaurreko entzunaldirako, hain zuzen ere Europako estrategia makroerregionalei buruzko ekimen propioko Irizpena egiteko buruturiko lanen barruan. Arantza Lopez de Munainek, RTAk Euskadiko EGABn duen koordinatzaileak, Atlantikorako Itsas Estrategiak dituen erronkak aurkeztu zizkien Europako EGABko kideei. Saio horretan, Baltikoko, Danubioko, Adriatiko-Joniko eta Alpe, ESPON eta METREXeko etorkizuneko strategiako ordezkariekin batera, estrategia makroerregionalak balioetsi ziren EBren hazkundea eta enplegua bultzatzeko tresna diren aldetik, eta Europako EGABko txostengile kontseilaria den Etele BARATHeK eginiko Irizpen proiektua eztabaidatu zen.

Atlantikoko Eremua Lurralde Lankidetzarako Programa Jarraitzeko Batzordean parte hartzea eta programaren urteko ekintza RTA Atlantikoko Eremua Programa Jarraitzeko Batzordeko kidea da Atlantikoko Eremuko gizartearen izenean. Euskadiko EGABk RTAko presidentzia du 2014 azarotik hona, eta foro horretako haren ordezkaria izan da 2014. urtean. Hartara, RTAren ordezkari gisa hartu zuen parte Batzordeak Madrilen **urriaren 23an** eginiko bileran.

Ordezkarri gisa, Programaren urteko ekitaldian ere hartu zuen parte abenduaren 16an Sevillan. Amaierako panelean jardun zuen, Arku Atlantikoko Batzordeko eta Atlantikoko Hirietako Konferentziako ordezkariekin batera RTAk Atlantikoko Eremuaren Lankidetzara Programa berriak 2014-2020 aldirako dituen igurikapenak azaltzeko.

RTA-K 2014AN EGINDAKO BILERAK

RTAko erabakiak hartzeko organo gorenek, Batzorde Betearazleak (Bureau), Osoko Bilkurak eta Orientazio Batzordeak, honako bilera hauek izan dituzte:

Bideokonferentzia, 2014ko urtarrilaren 20an

RTAren Batzorde Betearazlearen bilera

Santiagoko Orientazio Batzordean 2013ko ekainean hartutako erabakien gaineko jarraipenari buruzko argibideak eman zituen RTAko presidentek. Atlantikoko Foroaren Leadership Group-ek Lisboako abenduaren 4ko bileran harturiko erabakien berri ere eman zen. Bilera horietan, RTAko ordezkariak hartu zuen parte, eta Atlantikoko Estrategiaren gobernanzarako abiarazte fasean erabakitako bateratzeari buruzko informazioa ere eman zuen: Steering eta Leadership Group Talde bakarra bihurtzea, Atlantic Strategy Group izeneko, eta Atlantic Stakeholders Platform bat sortzea. RTAren Lan-talde berria abiarazteko beharrezko erabakiak hartu ziren. Izan ere, aipaturiko talde horrek Santiagon erabakitako funtsezko lanaren gai berriaren eta lanak hasteko beharrezko xedapenen gaineko lanak hartu ditu bere gain.

Azkenik, Arku Atlantikoko Batzordearekiko harremanen berri eman da, izandako eta izan beharreko bilerei dagokienez nahiz RTAren eta AABren Lankidetzaren Memorandumaren proiektuaren inguruan buruturiko gestioei dagokienez. Presidentziak prestatu du proiektu hori, eta negoziatioetan ari dira.

Bideokonferentzia, 2014ko apirilaren 1ean

RTAren Batzorde Betearazlearen bilera

Eratu berria den “Atlantikoko Estrategia abiaraztea” Lan-taldearen egoeraren berri eman zuen presidentek, eta apirilaren 4an egin beharreko bileraren gai-zerrenda eta garatu beharreko arloa zehazten duten edukien eta metodologiaren beharrezko dokumentuak jakinarazi zituen. Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearekin Bruselan maiatzaren 16an egitekotan den hitzaldiaren eta hango programaren eta hizlarien berri ere eman zen, eta Orientazio Batzordearen gai-zerrenda erabaki zen, Konferentziak jarraituko beharrekoa. Azkenik, Arku Atlantikoko Batzordearekin bi erakundeen artean egin beharreko Memorandumari buruz izaten ari diren elkarrizketen egoeraren berri eman zuen presidentek.

Bideokonferentzia, 2014ko maiatzaren 5ean

RTAren Batzorde Betearazlearen bilera

RTA-Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EEGAB) “Gizartea Atlantikoko Eskualderako Europar Batasunaren Estrategian” Konferentziaren programaren azken berrikustaldia egin zuen Batzorde Betearazleak, eta horren ondoren Europako EGABn egoitzan Bruselan maiatzaren 16an egingo den Orientazio Batzordearen gai-zerrenda ezagutarazi zuen.

Bruselan, 2014ko maiatzaren 16an

Orientazio Batzordearen bilera

Euskadiko EGABko eta RTAko presidentea den Juan Maria Otaegui buru zela, RTA-Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EEGAB) “Gizartea Atlantikoko Eskualderako Europar Batasunaren Estrategian” goizeko konferentzian entzundako mintzaldien balantzea egin zuen RTAren batzar nagusiak denbora batez, eta ondoren RTArentzako ondorio baliagarriak atera zituen. Isabelle Amauger-ek, RTAren “Atlantikorako Estrategia abiaraztea” Lan-taldeko buruak, taldearen lanaren garapenen eta bileren berri eman zuen bere mintzaldian. Arku Atlantikoko Batzordearekiko harremanei dagokienez, formalki eratu zen RTAren eta Arku Atlantikoko Batzordearen arteko Elkartzearen Memoranduma, Arku Atlantikoko Batzordeak apirileko bere batzar nagusian formalki eratuta dagoena dagoeneko. Jarraian, Arku Atlantikoko idazkari betearazleak hitz egin zuen, Pauline Caumont-ek. MARE ZNk Atlantikorako Estrategiaren Ekintza Planean parte hartzeko mekanismoa ezartzeko abiarazitako lehiaketan bere erakundeak aurkezturiko hautagaitza azaldu zuen. Izan ere, kontratutik kanpora, zenbait jarduketa burutuz hartuko luke parte RTAk Atlantikoko eskualdeetako ekonomia eta gizarte eragileei dagokienez. RTA handitzearen ingurukoak ere erabaki ziren hala nola Irish Sea Maritime Forumarekin harremanetan jartzea Atlantikorako Estrategia abiarazteko lan-taldeko balizko partaide gisa, Madeirako eta Azoreseko EGAB batzordeekin harremanetan jartzea eta berriki sortua den eskualde ultraperiferikoen EGABn plataformaren bilakaeran arreta jartzea, hain zuzen ere EBk finantzabideren bat ematen duen eta finantzabide hori RTAri

ere aplika dakioken jakiteko. Azkenik, Juan Maria Otaegui presidentek RTAren presidentzia eta Batzorde Betearazlea berritzeko prozesua aipatu zuen, hurrengo Orientazio Batzordean burutu beharrekoa, eta prozedura eta 2014ko amaieran eragozpenik gabe gauzatzeko beharrezko gogoetak eta elkarrizketak egin beharra gogoratu zuen. Hartara, Frantziako EGAB batek hartuko du RTAren hurrengo presidentzia.

Bideokonferentzia, 2014ko irailaren 12an

RTAren Batzorde Betearazlearen bilera

Batzorde Betearazleak sareko aribideko gaien egoera birpasatu zuen, bereziki “Atlantikorako Estrategia abiaraztea” Lan-taldearen lanak eta irailaren 9an eginiko bileraren emaitzak. MARE ZNk laguntza mekanismorako ezarritako kontratuaren lizentziaren emaitzaren berri eman zuen. Era berean, AABren Lan-taldeen eta Europar Batzordeak bultzatutako eta RTAren partaidetzako foroekin izandako bileren berri eman zen. Orientazio Batzordea azaroaren 24tik 28rako astean egitea planifikatu zen, eta horretarako gestioak eta prestakuntzak hastea erabaki zen.

Bideokonferentzia, 2014ko azaroaren 6an

RTAren Batzorde Betearazlearen bilera

Frantziako hainbat EGABk eginiko eskaeren ondoriozko arazoa landu zen, hots, Orientazio Batzordearen bilera 2015eko urtarrilerako edo otsailerako atzeratzea, lurralde erreformari buruzko lan handia egin beharra dagoela eta. Pays de Loireko EGABn proposamena jaso zen, bilera Nantes-en urtarrileko bigarren hamabostaldian edo otsailerako lehenengoan egiteari buruzkoa. Presidentziak prestakuntzei ekitea erabaki da oinarri horiek izanik. Lan-taldearen bilakaera aztertu da. MARE ZNrekin Atlantic Stakeholders Platform abiarazteari buruz Oporton urtarrilaren 20an izandako bilera azaldu zuen presidentek, eta workshop bat proposatu zuen plataforma horren lehen bilerarako, Atlantikoko beste bi sare nagusiekin batera (AAB eta ABAB). Batzordeak onetsi egin zuen proposamena.

Atlantikorako Estrategia abiarazteari buruzko Lan-taldea

Batzorde Betearazleak eratu zuten Taldea 2014ko urtarrilean, eta lehen batzarra apirilaren 4an egin zuen. Orientazio Batzordeak “Atlantikorako Estrategia behar bezala egiteko baldintzak” gaiaren inguruan erabakitako lanak burutzea du helburu. Lan horiek etapaka egiten ditu, eta



Estrategiaren ezarpena abiarazteko fasearekin hasi da. Hartara, Atlantikoko itsas ekonomiako eragileak Atlantikorako Estrategiaz jabetzea du ardatz egin beharreko lanak, Estrategia behar bezala abiarazteko aurre baldintza gisa.

Presidentea Isabelle Amauger da, Britainiako EGABko kontseilaria Taldeko txostengileak Roland Feredj, Akitaniako EGABko kontseilaria, eta Arantza Lopez de Munain dira.

Hauxe da Euskadiko EGAB lan-taldean ordezkatu duena:
Titularra: Arantza Lopez de Munain, RTAko koordinatzailea.

2014an eginiko bilerak:

Parisen, 2014ko apirilaren 4an

Bileraren lehen zatian zenbait entzunaldi izan ziren. Lehen zatian, RTAk Atlantikorako Estrategiaren arloan eginiko lanak eta ondorioak aztertu zituzten Euskadiko EGABko ordezkariak eta RTAko presidenteak. Bigarrenean, berriz, Frantziako Atlantikorako Estrategiaren gaineko ikuspegia aztertu zuen Frantziako gobernuko Itsasoaren Idazkaritza Nagusiko Claude Wohrer-ek. Hirugarrena, azkenik, Frantzian nazioko

edota eskualdeko kudeaketako Europako funtsen artean bideraturiko lanari eta Estrategiaren Ekintza Planaren lehentasunei buruzkoa izan zen, DATAReko Jean-Luc Frès-en eskutik. Jarraian, dokumentu metodologikoaren eta presidentziaren eta txostengileen edukien proposamena eztabaidatu eta erabaki zuen, baita informazioa biltzeko galdetegi bat ere. Informazioa EGAB bakoitzak bilduko du Atlantikorako Estrategian parte har lezaketen eskualdeko eragileen artean; izan ere, talde bakoitzak burutu beharreko lanaren abiapuntua da.

Urrutiko konferentzia, 2014ko uztailaren 10ean

Eskualde edota EGAB partaide bakoitzeko eragileek Atlantikorako Estrategian parte hartzeko duten ezagutza mailari eta interes, igurikapen eta zailtasunei buruzko informazioaren bilketa zein egoeratan dagoen jakiteko izan zen bilera, baita bilketa horren emaitza nagusien berri izateko ere.

Lisboan, 2014ko irailaren 9an

RTAko presidentziak Portugalgo Itsasoko Gaien Zuzendaritza Nagusiaren eta Foro Empresarial da Economia do Mar de Portugal delakoaren laguntzaz antolatu zen bilera, eta Estrategiak Portugalen duen egoera bertatik bertara ezagutaraztea eta RTAko bazkide portugaldarrei informazioa bertan biltzeko lana errazteko helburua izan zuen; beste estatu kide batzuk baino bazkide gutxiago dira portugaldarrak. Xede hori izanik, entzunaldi ugari izan zen bileran. Hasteko, Itsasoko Gaien zuzendari nagusia aritu zen, Joao Fonseca Ribeiro, Portugalek Atlantikorako Estrategiari buruz duen ikuspegia azaltzeko. Ondoren, Portugalgo Iparreko, Erdiko eta Alentejoko eskualdeetako ordezkariak jardun zuten, Ekintza Planaren lehentasunak eskualdeetako ESI funtsen programa operatiboetan txertatzeari buruz. Azkenik, tartean diren sektoreetako ordezkariak hitz egin zuten (arrantza, akuikultura, itsas bioteknologia, ontzigintza, itsas garraioa, portuak, nautika eta itsas energiak), eta bakoitzak Atlantikorako Estrategian parte hartzeko zailtasunen, interesen eta ezagutza mailaren gaineko bere ikuspegia azaldu zuen. Ondoren, entzunaldien saioetako ondorioei eta bazkide bakoitzak izandako elkarrizketetan eta inkestetan lorturiko datuei buruzko gogoeta egin zuen taldeak eta azken bilera bat egitea erabaki zen,

hizlariak diagnostikoei, ondorioei, proposamenei eta gomendioei buruz egin beharreko dokumentua oinarri hartuta.

Lan-taldearen bilerez gain, bi bilera izan zituzten txostengileek, azaroaren 13an eta abenduaren 10ean Bordelen.

2.2. EUROPAKO ITSAS ESKUALDE PERIFERIKOEN ETA ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEAREN HITZALDIA

Europako itsasoko 157 eskualdek osaturiko elkarte da, Europar Batasunaren garapen orekatua sustatzeko, betiere eskualdeon aktibo komunak balioetsiz, baita eskualdeak Europako integrazio prozesuan parte-hartzera bultzatzeko eta Europako agintariak itsasoko eskualdeen eta eskualde periferikoen berezitasunez eta beharrez jabearazteko ere, Europako integrazioaren testuinguruan.

Sei batzorde geografikotan antolatzen da, eta horietako bat Arku Atlantikoko Batzordea da. Horietako kide formalak dira elkarte horrekin bat egiten duten eskualdeetako agintarien ordezkariak, eta eskualdeetako Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeek lankidetzarako formulak bideratu dituzte 2008tik hona RTAren bitartez, Batzar Nagusiaren, Koordinazio Batzordearen eta Lantaldean lanetan parte hartuz.

Euskadiko EGABk CRPMren Batzar Nagusian hartu zuen parte irailaren 25ean eta 26an. Eztabaiden ardatzak kohesioa, irisgarritasuna eta itsasoaren gaineko gaiak izan ziren. Europar Batasunaren 6. Kohesioaren Txostenak erakarri zuen kohesioari buruzko bileraren arreta, eta politika horrek bideraturiko inbertsioak betetzen duen funtsezko eginkizuna gelditu zen agerian, hain zuzen estatuak krisialdian inbertsio publikoa nabarmen jaitsi duten testuinguruan. Irisgarritasunari dagokionez, Europako garraioaren gaineko politikaren aldeko ekintza sendoa hedatzea erabaki zen, lurralde kohesioa lortzeko, eskualde mailan orekatua eta polizentrikoa, erdigunea ardatz duen egungo politikatik urrun. Itsas garraioak testuinguru horretan bultzatu beharra azpimarratu zen, baita “hazkunde urdina” deritzon ekimenaren baitan izaten ari diren onurak dakartzan bultzada ere. Hala eta guztiz ere, itsas garraioa erregaei duten sufreaki buruzko Zuzentaraua laster indarrean

sartzeak sektorean izan ditzakeen arrisku handiak ere nabarmendu ziren; izan ere, itsasoko fluxuak errepidera transferitzea ekar dezake Zuzentarau horrek.

ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEA

2008tik hona, Arku Atlantikoko Batzordearen eta RTAren arteko lankidetzako formulak bideratu dira, halako moldez non sareko lana bultzatu baita Atlantikoko hainbat eragileren artean. Hartara, RTA Arku Atlantikoko Batzordeko Koordinazio Batzordean eta bere lan-taldeetan parte hartzen hasi zen. 2014an, Arku Atlantikoko Batzordearen eta RTAren artean (horren bazkide sortzailea da Euskadiko EGAB), Lankidetzaren Memorandum bat sortu zuten, eta horren bidez, bi erakundeok beste erakunde horretako kide elkartu bihurtzen dira.

Euskadiko EGABk Bordelen apirilaren 24an eta 25ean eta irailaren 24an Umean egin ziren Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusietan hartu zuen parte. Bordelen, AABren eta RTAren arteko Lankidetzaren Memorandum onesteaz gain, bere lan-talde guztiek eginiko lanak aztertu ziren, eta arreta berezia jarri zen irisgarritasunean. Hala, Europar Batzordeak Garraioen Foroak sortu zituen, eta bereziki, Atlantikoko Igarobideari dagokiona, Laneko Planean prestatu behar izango duena hain zuzen. Batzarrak bere Bureau politikoa berritu zuen, baita bere presidentearen agintaldia ere beste bi urtez: Ignacio Diego, Kantabriako presidentea.

Umeako bileran, itsasoko energia berriztagarriari buruzko dokumentu bat onetsi zen, Europar Batzordearentzat eta horrek ezarritako Itsas Energiaren Foroarentzat, zertarako-eta Atlantikoko eskualdeek arlo horretan dituzten indarguneak nabarmentzeko eta Atlantikoan itsas energia berriztagarriak bizkorrago hedatzeko proposamenak proposatzeko.

Euskadiko EGABk Garraio, Itsas Energia Berriztagarri eta Atlantikorako Estrategiako lan-taldeetan hartzen du parte, RTAren ordezkari legez.

Euskadiko EGABk, 2014. urtean, Arku Atlantikoko Batzordeko Garraioko Lan-taldeak Bruselan uztailaren 8an eginiko batzarrean hartu zuen parte.

Hona hemen bileraren xedea: Europar Batzordeak ezarritako Atlantikoko Igarobideko Garraioaren Foroaren lanetako partaidetza antolatzea eskualdeentzat eta gizartearentzat aurreikusitako saioetan. Era berean, CFA-EFFIPLAT proiektuaren egoera landu zen. Izan ere, Atlantikoko trenbide eta portuen igarobidea sustatzeko eta plataforma logistikoen sareak Atlantikoko igarobidean duen eraginkortasuna hobetzeko egin zen proiektua, Garraioaren Lan-taldearen baitan sortua. Euskadiko EGAB bazkidea da bertan, RTAren ordezkari. Euskadiko EGABk proiektuko azpiegituren eta zerbitzuen lan-taldean bileretan hartu zuen parte. Bilera horiek Pasaian eta Bordelen egin ziren, azaroaren 5ean eta abenduaren 10ean hurrenez hurren. Gainera Bilboko irailaren 18ko jendaurreko aurkezpenean ere izan zen.

Arku Atlantikoko Energia Berriztagarrien Lan-taldearen jardueren baitan, Euskadiko EGABk ekainaren 25eko bileran hartu zuen parte Bruselan. Bertan eztabaidatu zen itsas energiari buruzko dokumentuaren proiektua, Europar Batzordearen MARE Zuzendaritza Nagusian eta azken horrek ezarritako Itsas Energiaren Foroan hauxe aldarrikatzeko: Atlantikoko eskualdeek arlo horretan betetzen duten eginkizuna eta alde horretatik eskualdeek dituzten igurikapenak eta beharrak.

Arku Atlantikoko Batzordearen Atlantikorako Estrategiaren Taldeari dagokionez, azaroaren 20ko bileran hartu zuen parte Euskadiko EGABk Bruselan. Talde hori 2011. urtean sortu zen Atlantikoko eskualdeek Atlantikorako Estrategiaren Ekintza Plana egiteko prozesuan adierazitako kezkek bideratzeko, eta bere jarduerak egiteari utzi zion Plana maiatzaren 12an onetsi zenean. Azaroko 20ko bileran, sakon eztabaidatu eta onetsi zen presidentziaren eta idazkaritza betearazlearen proposamena, hots, taldeari indar berria ematea Plana abiarazteko prozesuaren jarraipena egiteko eta Atlantikoko eskualdeen igurikapenak helaraztea taldeari.

3. LANKIDETZA EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BESTE BATZORDE BATZUEKIN

3.1. LANKIDETZA EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEAREKIN (EEGAB)

Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (EEGAB) eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen arteko harremanak oso estuak izan ziren 2014an.

Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea lagungarria izan da Atlantikoko Estrategikoari eta Europako Atlantikoko Itsas Estrategikoari buruz eginiko lanak burutzeko, bi modutan: zuzenean, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lanetan lankidetzan arituta eta Irizpenetan laguntza teknikoa emanez. Eta zeharka, RTAn duen partaidetzaren eta EEGABen lanetarako ekarpen espezifikoaren prestakuntzaren bidez.

Azkenik, RTAren ordezkarietan eta Europako EGABk eskuordetuta, Euskadiko EGAB haren ordezkaria da Atlantikoko Foroaren Steering Group taldearen baitan (gaur egun Atlantic Strategy Group) prestakuntzako saioetan eta saio teknikoetan.

Halaber, aholkuak eta laguntza ematen dizkio Europako EGABk “Leadership Group” (gaur egun Atlantic Strategy Group) taldean duen ordezkariari erabakiak hartzeko saioetan eta saio politikoetan. Atlantic Strategy Group delakoa Atlantikoko eta Europako erakundeetako 5 estatu kideetako ordezkariekin dago osatuta.

4. FRANTZIA-ESPAINIA-ANDORRA LURRALDE ARTEKO LANKIDETZA PROGRAMA 2007-2013, POCTEFA


Euskadiko EGAB Frantzia-Espainia-Andorra Programa 2007-2013 Jarraitzeko Batzordeko kidea da, Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko Lurralde Lankidetzako 2007-2013ko Programa Operatiboan bertan eta Jarraipen Batzordearen barneko arautegian ezarritakoa dela bide. Izan ere, beren beregi xedatu dute aholkulari gisa hartuko dela parte Euskadiko, Nafarroako,

Aragoiko, Kataluniako, Errioxako, Akitaniako, Midi-Pyrénées-eko eta Languedoc-Roussillongo Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeetan. Horrez gain, hauexek osatzen dute batzordea: Pirinioetako Lan Erkidegoa, Kudeaketaren Agintaritza den aldetik; Europar Batzordea, aholkulari gisa; Frantziako eta Espainiako agintarien ordezkariak paritarioa (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako, Aragoiko, Kataluniako eta Errioxako erkidegoak barne); Estatuaren Administrazio Orokorra eta Ingurumeneko Agintarien Sarea. Frantziatik: Akitaniako, Midi-Pyrénées-eko eta Languedoc-Roussillongo Eskualde Batzordeak, eskualdeetako burutzak, Ariège, Haute-Garonne, Hautes-Pyrénées, Pyrénées-Atlantiques eta Pyrénées-Orientales-eko Batzorde Nagusiak eta horien departamentu burutzak, ingurumeneko agintaritza eta Commissariat de Massif à l'Aménagement des Pyrénées. Funtsean programaren helburuak betetzen direla aztertzeko eta programaren baterako finantzaketarako aurkezturiko proiektuak hautatzeko irizpideak aztertu eta onesteko eginkizunak betetzen ditu, baita betearazpenaren emaitzak aztertu eta programa berrikusteko proposamena egiteko ere. 4 bilera egin zituen 2014an: martxoaren 12an Jakan, uztailaren 3an Bordelen, irailaren 17an Andorra La Vellan eta abenduaren 17an Jakan. 2014-2020ko programa operatibo berria egitea izan da bileren ardatza.



V. KAPITULUA

Giza-baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa



1. 2014KO AURREKONTUA



2014rako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokion gastuen aurrekontuak 1.412.460,17 euroko hornidura izan zuen; 1.310.000 euro EAEko aurrekontu orokorren kargura finantzatu ziren, 61.960,17 euro aurreko ekitaldietako gerakinen kargura eta 40.500,00 euro diru-sarrera finantzarioen kargura.

2014rako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu arrunta honako kapitulu handitan banatu zen:

	AURREKONTUKOIA	BETEARAZIA	MAILA
GASTUAK	1.412.460,17	1.231.017,66	87,15%
• I. Kapituluak- Pertsonal gastuak	674.903,45	573.989,50	85,05%
• II. Kapituluak.- Funtzionamendu gastuak	707.056,72	627.396,23	88,73%
• VI. Kapituluak.- Inbertsioak	13.500,00	10.148,42	75,17%
SARRERAK	1.412.460,17	1.231.017,66	87,15%
• IV. Kapituluak.- Gast. arruntaren transf. eta diru-lag.	1.310.000,00	1.310.000,00	100,0%
Eusko Jaurlaritzak	1.310.000,00	1.310.000,00	100,0%
• V. Kapituluak.- Ondare sarrerak. Finantza sarrerak	40.500,00	34.283,81	84,65%
• Aurreko ekitaldietako gerakinak	61.960,17	-113.266,15	

Aurrekontuaren likidazio-datuak 2014. ekitaldiko likidazioari dagozkio eta argitalpen-datan urteko ikuskaritza pasatzeke dute.

Gastuen likidazioaren eboluzio historikoaren xehetasuna eta eboluzioa kapituluak:




2. BATZORDEARON LANGILEAK

Euskadiko EGABen zerbitzuko plantilla, presidentez eta idazkari nagusiaz gain, zortzi pertsonekin dago osatuta, hainbat lan arlotan banatuak:

- Azterlanen eta proiektuen 3 arduradun.
- Administrazio eta Zerbitzuetako arduradun 1.
- Zuzendaritza idazkari 1.
- 3 administrari.

VI. KAPITULUA

Komunikazioa, dokumentazioa eta argitalpenak



1. KOMUNIKAZIOA

1.1. WEB orria

2014. urtean Euskadiko EGABren orri berria jarri da abian eta edukiak zabaltzeaz gain, Batzordearen irudia eguneratu eta irisgarritasuna hobetu ditu.



Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko informazioa (bere jarduerak eta argitalpen-ekoizpena) eskaintzen da.

“Jarduerak eta Gaurkotasuna” atalaren bitartez Batzordeak garatzen dituen jarduerari buruzko informazio eguneratua lor daiteke, besteak beste, hurrengoa: irizpenak igortzea, txostenak eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea, etab.

Euskadiko EGABk argitaratutako lan guztiak aske lor daitezke eta PDF formatuan deskargatzeko “dokumentuak eta lanak” atalean daude eskura.

1.2. TWITTER @CESEGAB

2013. urteaz gero, EGABk Twitterren duen kontuari esker gizarte-sareetan parte hartzen du eta egunero bere jarraitzaileei Batzordearen jarduerarekin zerikusia duten alderdiei buruz berri ematen die.

Berriazko informazioaz gain, jendeari zerrenda irekiak eskainiz erakunde eta ekonomia- nahiz gizarte-eragileen multzo jori eta interesgarriak, baita Batzordearen kide diren erakundeek ere gizarte-sare honi ematen dioten informazioa bildu eta aurkezten du.

Era berean, “RETUIT” tresnaren bitartez, kontsulta-erakunde honen interes-eremuei dagokionez, hirugarrenen informazioak hautatu eta hedatzen ditu, bere iritziz aipagarriak badira.

Jarraitzaileak 2014/01/01ean	1.849
Jarraitzaileak 2014/12/31an	3.069
TWEETak 2015/02/06an	1.754

ELKARREKINTZAK

2014ko urritik abendura bitarteko datuak

Elkarrekintza-tasa	%1,0
Klikak loturan	148
<i>Batez beste, eguneko 2 klik lortu ziren loturan</i>	
RETUITAK	153
<i>Batez beste, eguneko 2 retuit lortu ziren</i>	
Gogokoak	68
<i>Batez beste, eguneko gogoko bat lortu zen</i>	
Erantzunak	18

2008ko abenduan Euskadiko EGABren informazio-buletinak ikusi zuen argia. EGABren jarduera hedatzeko tresna da eta erakunde honen iritzia ahalik eta pertsona gehienena iristeko ibilgailu garrantzitsua da. Argitalpenak ekonomia- eta gizarte-informazio aipagarria eta gaurkotasunari buruzkoa du, bai abagunearen ikuspegitik, bai egituraren ikuspuntutik. Era berean, Batzordearen jarduerari dagozkion laburpenak eta kooperazio europarraren arloan bere lana jasotzen dira.

Ekonomia- eta gizarte-informazio azpimarragarriaren artean, honakoak aipa daitezke: lan-merkatuaren, hezkuntzaren, gizarte-babesaren... adierazleak; industria-produkzioaren, merkataritzaren eta prezio, kostu nahiz produktibitatearen indizeak; I+G+ba; ingurumena; gastu publikoa eta zergen diru-bilketa; gizarte-zerbitzuak; demografia eta immigrazioa; etxebizitza;

ekonomia-proiektzioak...

2014ko martxotik hilean behin argitaratzen da eta posta elektronikoz nahiz web orriaren bitartez hedatzen da.

2014 LABURPENA	
Bidalketak guztira	39.844
Kanpainak guztira	31
Irekierak guztira	20.853
Irekiera bakarrak guztira	9.199
Klikak guztira	11.445
Nork klikatu zuen guztira	2.627
Aurten 2.856 harpidedun irabazi ditugu	
Kanpaina guztietarako gure batez besteko irekiera %23,1ekoa izan zen.	
<i>Sektorearen batez bestekoa %23,1ekoa da.</i>	
Kanpaina guztietarako gure batez besteko ratioa %6,6koa izan zen.	
<i>Sektorearen batez bestekoa %3,3koa da.</i>	

1.3 Ikuste Fitxategia

Batzordeak Batzordeak berak egindako ekitaldi eta bilera garrantzitsuenei buruzko argazki digitalen fitxategia du.

2. EGABen JARDUERA KOMUNIKA BIDEETAN

2.1 Prentsaurrekoak

2013ko martxoaren 18an, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Prentsaurrekorako deialdia, 2012ko ekitaldiko Jardueren Memoria aurkezteko. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2012ko Jardueren Memoria aurkeztu zuen. Bertan bildu dira EGABek aurreko ekitaldian buruturiko jarduerak.

Juan Maria Otaegui presidenteak eginiko lanari eta 2012an erakundearen gertatu den guztiari buruzko balorazioa eman zuen.

2013ko uztailaren 11n, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Prensaurrekorako deialdia, EAEko 2012ko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko. Euskadiko EGABen Memoriak EAEn ekonomia, lan eta gizarte datuak aztertzen ditu. Gainera, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea osatzen duten gizarte eta ekonomia eragileek konpartituriko diagnostikoa eskaintzen du.

2.2 Prentsa oharrak

2013an, EGABen jarduerak eta lanak ezagutarazteko 13 prentsa-ohar igorri zitzaizkien hedabideei ondoren azalduko diren egunetan.

2013ko martxoak 19

EGABek 2012ko Jardueren Memoria aurkeztu zuen. Bertan bildutakoaren arabera, EGABek 27 irizpen eman zituen guztira 2012. urtean Eusko Jaurlaritzaren lege proiektuei edo dekretu proiektuei buruz. Askotariko arloak jarri ziren erakundearen kontsultapean. Irizpenen %80k onarpen maila nabarmena eta balorazio positiboa izan ditu.

Euskadiko EGABek, 2012an, Euskadin energia berriztagarrien garapenari buruzko ekimen propioko azterlana aurkeztu zuen eta beste bi lan abiarazi zituen EAEko familien gehiegizko zorpetzearen eta lurralde desorekei buruz.

Batzordeak presentzia handitu zuen European 2012an, Estrategia Atlantikoaren Ekintza Plana egiten parte hartuz eta Eskualde Atlantikoko EGABekin eta Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearekin batera jardunda.

2013ko martxoak 27

Prentsa-oharra EGABen osoko bilkuran izan zen aurkezpena zela eta. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburuak 2013ko Aurrekontu Orokorren Proiektua aurkeztu zuen bertan.

Sailburuak azaldu zuenez, “atzeraldi ekonomiko larriari eman behar diote erantzuna aurrekontuek eta, gainera, egoera ekonomiko finantzario oso ahuletik abiatuta egin behar diote aurre erronkari, noiz-eta aurreko ekitaldian baino baliabide nabarmen gutxiago daudenean eskuragarri”. Euskadiko Administrazioak 9.316,7 milioi euroko gastu aurrekontua du 2013rako, aurreko ekitaldian baino %10,8 gutxiago.

2013ko ekainak 4

Prensa-oharra Gobernuko Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak aurkezturiko proiektuaren gaineko irizpena onetsi zela jakinarazteko: Profesionaltasuneko Ziurtagirien eta Pilatutako Egiaztapen Partzialen Euskadiko Erregistroa sortu eta ziurtagiri horiek erregistratzeko eta egiteko prozedura ezartzen duen dekretu proiektua. EGAB horren alde agertu zen; Lanbideri atxikia izango da. EGABek arauak ematen duen aukera baliatu behar dela uste du, eta aldi berean Lanbideko Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio aurreikusitako prozeduren erregulazioa bizkortu dezan, interesa dutenek berandu barik eskatu ahal izan ditzaten beren ziurtagiriak eta lan-merkatuan balioetsi.

2013ko ekainak 6

Prensa-oharra EGABen aldeko irizpena emateko, “Prestakuntza-espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta enplegurako prestakuntza zentroen eta erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretuaren proiektua”ren gainekoa. Prestakuntzaren kalitatea egiaztatzeke bi tresna sortzeko helburua du legegintzako ekimenak: Prestakuntza-espezialitateen fitxategia eta prestakuntza zentroen eta erakundeen erregistroa. Bi tresna horiek osagarriak dira. EGABek uste du araudiak nolabaiteko atzerapena duela, politika aktiboak EAeri eskualdatu zitzaizkionetik igarotako denbora dela-eta. Horregatik, Lanbideri premia eskatzen dio ez dadila atzeratu arau honen gaineko ebazpenak ematen.

2013ko ekainak 7

EGABek aldeko txostena eman zion nekazaritza, elikagaigintza eta arrantza sektoreen I+G+b-rako laguntzen proiektuari. EGABek balorazio positiboa egiten du beren irizpenpean jarritako ekimenaren aukeraz, baina justifikazioa hobetu eta edukia erraztea gomendatzen du.

Horrelako dekretu batek, bere ustez, ez luke hain arau-zehaztasun handia bildu behar nahikoa aldizkakotasun handiarekin aldaketak eta eguneraketak behar dituzten arloetan.

2013ko uztailak 11

EGABek bere 2012ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zuen. 2012an nagusi izan ziren gizarte eta ekonomia aldagaia nagusiak eta datu zehatzak dakartza txostenak. Gainera, atal bakoitzeko urteko estatistikak osatzen dituzten zenbait gogoeta ezarri ditu EGABek, hura osatzen duten ekonomia eta gizarte eragileek konpartituriko diagnostikoa oinarri hartuta. EGABek honela definitu zuen 2012. urtea: “zaila euskal ekonomiarentzat; beheranzko profila izan du aldagai garrantzitsu guztietan, eta oraindik ez da joera aldaketarik antzematen”. Bereziki kezkarritzat jo zuen industria eta zerbitzuetako sektoreko kontratazioa. Bost urtez jarraian egin zuen gora langabetuen kopuruak EAEn; adin-tarte guztietan izan du eragina. Nahiz eta sarrerak bermatzeko euskal sistemak pobrezia aretatzen duen, EGABek ohartarazten du euskal gizartearen desberdintasunaren arloan gero eta handiagoa den polarizazioaz; izan ere, pobrezia tasa handiak daude etorkinen familietan, guraso bakarreko familietan edo langabezian daudenetan. Haur hezkuntzako eskolatze-tasak ELGaren eta EBren batez bestekoak gaituzten ditu, eta gora egin du matrikulazioak maila guztietan, nabarmen lanbide heziketan.

2013ko uztailak 15

Nekazari gazteen estatutuari buruzko dekretu proiektuaren aldeko irizpena; zenbait gogoeta ezarri ditu bertan. Nekazari gazteen estatutuaren xedea da gazteak sartzea eta jarraitzea nekazaritza ustiategi profesionalen titular. Soldatapeko lan-esku gutxi duten familia ustiategiekin dago osatuta, gehienbat, Euskadiko nekazaritzaren sektorea. Belaunaldien arteko erreleburik eza eta lan-baldintza gogorrak direla-eta, gazteen lana erakartzeko zailtasun handienak dituzten sektoreetako bat da. B e r e gogoetetan, honako hau ataletan argi sartzea gomendatzen du EGABek: gazteei exijitu behar zaien “profesionaltasun” ezaugarria. Gainera, GazteNEKek solaskidetzan eta lanbidean aritzeko prozesu osoan ematen duen laguntasuna azpimarratzen ditu.

2013ko irailak 16

Prensa-oharra, Jesus Peña Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren idazkari nagusiak Eusko Jaurlaritzaren ekonomia eta enplegua sustatzeko estrategien aurkezpena zela-eta. Jesus Peñak esan duenaren arabera, ekonomiaren egoera kezagarria da oraindik ere, gero eta lanpostu gehiago ari dira galtzen eta Euskadiko gizarte zerbitzuen sistema ezinbesteko euskarria da. Horren guztiaren ondorioz langabezia-tasa %12,1ekoa izan zen 2012an, eta uste da datorren urtean %12,7ra iritsiko dela.

2013ko irailak 17

Prensa-oharra: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du ez dela egokia Foru Aldundien adingabeen adopzioaren arloko jarduna arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa izapidetzea. Aldaketa horrek adoptatzailearen adinaren eta adopziogaiaren adinaren arteko gehieneko aldea 44 urtekoa izatea ezarri nahi du arau orokor gisa.

Bere irizpenean, EGABek adierazi du ezin dituela alde batera utzi 10/12 Irizpena eragin zuten gogoetak; bertan positibotzat jo zen adin-muga kronologiko hori kentzea.

2013ko azaroak 8

Ricardo Gatzagaetxebarria Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburuak Euskadiko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak aurkeztu zituen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkuran. Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuen proiektua, 10.215 milioi eurokoa- aribideko urtekoa baino %9,6 gehiago (9.316 milioi)-, dagoeneko izapidetuta dago Eusko Legebiltzarrean. Legebiltzarreko ganberan izapideak abenduaren 20an bukatuko dira, orduan egingo baita testuaren gaineko behin betiko bozketa.

2013ko azaroak 26

EGABek egokitzen jo du “EAEko arreta goiztiarraren esku-hartze integralari buruzko dekretu proiektua”. Arreta goiztiarra 0 eta 6 urte arteko umeekin, nahasmenduak eta arrisku egoerak ekiditeko, egiten diren esku hartzeen multzoa da. Osasun eta hezkuntza sistemek eta gizarte zerbitzuek hartzen dute parte jarduketa hauetan. Dekretu proiektuak

arreta goiztiarrean zerikusia duten arreta sistemen artean egon behar den antolaketa funtzionaleko eta baliabide-koordinazioko ereduak formulatzen du. Eremu honetan, EGABek hiru lurralde historikoetan irizpideak bateratzea gomendatzen du.

Bilbon, 2013ko abenduaren 23an

Prensa-oharra, 2013-2016ko Enplegu Planari buruzko Irizpena onetsi ondoren. EGAB bat dator 2013-2016ko Enplegu Planaren tesiekin, baina zenbait hutsune berrikustea gomendatzen du. Horien artean, beste politika eta plangintza eremu estrategiko batzuekin bat etortze horrek jarduketako ildoetan isla izan beharko lukeela nabarmentzen da, baita ekimen publikoaren partaidetza nahikoa ez izatea inbertsioa eta enplegua bultzatzeko eta ardatzek eta programek ikusitako ahuleziekin eta arriskuekin bateratasun handiagoa izatea ere. Gainera, uste du egungoa bezalako ezohiko egoerari aurre egiteko dokumentuan ematen diren baliabideak ez direla nahikoak eta gehitu behar direla.

Bilbon, 2013ko abenduaren 23an

Prensa-oharra: Euskadiko artisau elikagaigintzako ekoizpenaren Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuaren aldatetari buruzko irizpena eman zuen EGABek. Legegintzako ekimena iazko uztailean onetsitako dekretuaren aldarazpena da; izan ere, zenbait aldaketa ezarri dira bertan Europar Batasunak hala eskaturik. Haren ustez, ez da bermatzen merkantzien zirkulazio askea, erkidego barruko merkataritza oztopatu eta ez da ahalbidetzen beste estatu kide batzuetako operadoreek dekretuan arauturiko kalitatea araubidea eskuratzea. EGAB ez dator bat planteaturiko aldaketa askorekin, zeren eta, bere ustez, desitxuratu eta baliogabetu egiten baita jatorriko dekretuaren xedea: Euskadiko elikagaien artisau ekoizpen tradizional txikiak babestea eta sustatzea.

3. ARGITALPENAK

2014an, argitalpen hauek eseki dira WEB orrian PDF formatuan:

- 2013ko Jardueren Memoria.
- 2013ko Memoria Sozioekonomikoa.
 - 2013ko Memoria Ekonomikoaren laburpena eta gogoetak.
 - 2013ko Memoria Sozioekonomikoaren lehen aurrerapena.
- Irizpenak:
 - 1/14 Krisian dauden enpresak berregituratzeko eta suspertzeko laguntzak ezartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
 - 2/14 Ikuskizun publikoei eta jolas-jardueri buruzko legearen aurreproiektuaren ingurukoa.
 - 3/14 327/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen, bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.
 - 4/14 “2014-2016ko Industrializazio Plana”ri buruzkoa.
 - 5/14 Emakume nekazarien Estatutuaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
 - 6/14 gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko HEZIBI programaren oinarri arautzaileak ezartzen duen agindu bateratua aldatzeko agindu proiektuari buruzkoa
 - 7/14 nekazaritza, elikadura, arrantza eta basoko produktuen sustapena laguntzeari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa
 - 8/14 Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
 - 9/14 Ondorengoei buruzkoa:
 - Seme-alabak beren kargura dituzten familiei babesteko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektua
 - 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familiaren politiken



esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua

- 177/2010 Dekretua, uztailaren 29koa, familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzei buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua
- 10/14 Mendekotasunen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa
- 11/14 Hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egitekodekretu-proiektuari buruzkoa
- 12/14 Merkataritza-jardueraren Legearen laugarren aldaketari dagokion lege-aurreproiektuari buruzkoa
- 13/14 Euskadiko Turismoaren Mahaia sortzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- 14/14 industria-jardueren hasiera eta funtzionamenduaren araubide orokorra nahiz Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuari buruzkoa
- 15/14 Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari dagokion Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

VII. KAPITULUA

Euskadiko EGABren araudia



- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa).
 - Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).
 - 2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).
 - 2013ko azaroaren 22ko osoko bilkuraren ERABAKIA. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Arautegi Berria onetsi zuen (EHAA, 232 zk., 2013-12-11koa).
- 